


## Hasi da lau t'erdiko txapelketa

Beotibarren jokatu zituzten atzo lehen partiduak ▶ 4



# Zeberio II.ak eta Urrutiak irabazi dute Binakako Erremonte Txapelketa

**BUELTA** ▶ Galtzen hasi arren, 40-28 irabazi diete Altuna II.a eta Etxaberi  
**TXAPELAK** ▶ Laugarrena lortu du elduindarrak, lau final jokatura ▶ 5



Zeberio II.ak pozarren bukatu zuen finala atzo; lau jokatu ditu, eta laurak irabazi. JON URBE - ARGAZKI PRESS

## Gazteak biltzeko txokoak, ugaritzen

Tabernan edo kalean egotearen alternatiba direla uste dute ▶ 6

### URSULA AZPIROZ ▶ EMAKUME ADIMENTSUA

«Konponbide zailekoa dago egun egoera politikoa»

Errepublika garaian, liberekin, hasi zen Emakume Abertzale Batzan ▶ 2-3



Ursula Azpiroz. JAIONE ASTIBIA

## Protestaldia hasi dute presoek Frantziako eta Espainiako kartzeletan

Itxialdi txandakatuak ari dira egiten ▶ 7



**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

- Kanposantuko Lanak**
- Ehorzketak
  - Lurpetik ateratzea
  - Gerakinen lekualdatzea
  - Gerakinen errausketa
  - Errausketa zerbitzua
  - Hilerriaren proiektuak
  - Hilerriaren eraldaketak
  - Eraikuntza ezberdinak
  - Hilobien apainketa
  - Hilarriak
  - Panteoiak
  - Hilobiak
  - Estelak
  - Fotozeramikak
  - Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - TOLOSA  
Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraukorra: 610 552 552  
Bidasoa, 9 behea -ORERETA- ERRENTERIA  
Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41  
www.landarri.com • landarri.l@terra.es

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko deitu

www.saldias-miguel.com

**Saldías Miguel**

• AUTOAK • ENPRESAK • AUTONOMOAK  
• MOTOAK • DENDAK • MOTA GUZTIAKO  
• ETXEAK • ISTRIPUAK • ASEGURUAK

Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 • Faxa: 943 653462

UZTURRETIK ▶  
RAMON OLASAGASTIZe urrun  
dagoen  
Mozambique

**H**auxe mundua jan beharra; ongizate erreinuko biztanleoi txiki geratu zaigu gure lur hau: euskaldunok gure bizi ohiturei eutsiko badio-gu, bi planeta eta erdi beharko genituzke. Hala azaldu dute Jaurilaritzako Ingurumen Sailekoek. Mozambikoko herritar batek halako hamar behar omen dugu gure eguneroko premiak asetzeko. Larre motzetik pentsu gizenara pasa garela urte gutxian, alegia. Neurrigabeko kontsumo, autoaren gehiegizko erabilera, energia larregi zahutzea... leporatu digute Ingurumen Sailekoek. Aztarna ekologikoa deitzen dute adierazle hori, eta gure kontsumo ohiturak nahiz kontsumo horrek eragiten dituen hondakinak tratatzeko behar den lur eremua neurtzeko balio du. Euskaldunok 4,66 hektarea behar omen ditugu eta, beraz, zorretan omen gaude ingurumenarekin.

Zorretan, bai, arrazoi dute Ingurumen Sailekoek, baina gure zorrak huskeria dira Jaurilaritzako beste apopiloen zorren aldean. Euskal Hirian galdutako menditarraren aurpegikera izua nabaritzen zaio batzutan Sabin Intxaurren, otso artean galdutako bildotsarena, batean Ammanek eta bestean Azkaratek ipurdia ebaindutako mutil kozkor bihurriaren itxura. Bata gure kontsumo ohiturak aldatu behar direla esaten, eta besteak nonahi merkatal zentro erraldoiak eraikitze baimenak ematen, gure mendi tontorretan zentral eolikoak ipintzen, Euskal Ya edo Pasaia superportua bezalako proiektuak bultzatzen... Halaxe daokigu. Jakin nahiko nuke gure mendi eta itsas-labarrei zenbat hektarea kendu dizkieten honetaz eta zenbat hozkatuko lizkioketen Euskal Ya edo Pasaia kanpo portua eraikitze. Aztarna ekologikoa ez, triskantza ekologikoa litzateke eurena.

Batzuk Europarako trenean daude, eta besteek mozambikarren bizimodua egiteko eskatzen. Hau da hau komerial! Gaztelaraz, *Tren de vida* honi ezin zaiola eutsi esan zuen Ifaki Ezkurra Ingurumen sailburuordeak. Tren horrek, ordea, barruan garamatza guztiok, ohartu ala ez, eta nago, jada berandu dela gelditze.

## KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



## URSULA AZPIROZ ▶ EMAKUME ADIMENTSUA

«Denbora gutxi izan  
genuen; gerra hasi zenean  
bukatu ziren gure lanak»

Bere 96 urterekin, Leitzako lagunik adindunena da. Aldakako desgastea kenduta, sasoiko dago eta buruz adimentsu, batez ere. Hamaika bizipenen jabe.

## JAIONE ASTIBIA

Ursulak bere etxean hartu gaitu eskuzabal eta hamaika kontu esan dizkigu: bere bizi guztiari errebasoa ematea zail da, hainbeste gertakari jazotakoa izaki. Baina, hala ere, mordoskatxo bat jaso eta hemen dihoaz, eta beste batzuk, berriz, hartzarenak, Ingurutoarenak, bertso zaharrak... hurrengo batean beharko.

**Etxeberrin jaioa. Zenbat senide zineten?**

Zazpi: Valeriana, moja, Juanita, Juan Kruz, ni, Tiburtzio, urtebetekin hil zena, Petra eta Periko, kintara aillatu baino lehen eraman zuten gerrara eta 20 urte bete baino lehen han hil zen. Petra, berriz, ahizpetan tikiena

zen eta ikasi egin zuen eta euskarazko eskolan, Lizarrako ikastolan andereño zen. Gerrakoan itxi zuten eta ez zuen gehiago lanik egin hartan.

**Horrela ari garela, Emakume Abertzale Batza-ko kide zinen zu zerorre ere.**

Bai, Errepublikaren garaian, libertate pixko bat etorri zenean, biltzen hasi ginen, lanean, ni gaztea nintzen baina ikusten-eta han izaten nintzen.

**Zer egiten zenuten?**

Ezpatadantzariak, hiru talde sortu ziren orduan, eta haien tizat arropak josi; Poxpolinekin, jantzi euskaldunak egin eta euskal festetan parte hartu; kantuak ikasi... Guk Iruñekoa genuen erakustuna, Juanita Zia, oso fina zen. Txistulariak

ere, hauei Don Ramon Olazararek erakusten zien, organista zen bera; antzerkia ere egiten genuen...

**Arlo asko lantzen zenituzten?**

Hala da. Egoera politikoak eta gizarteak ere hitzegiten zen eta euskal zirenean, joaten ginen. San Migelera ere bai, Lekunberriraino *atamoilen* eta handik oinez. Futbol taldea ere bazen herrian. *Aurrera euskaldunak* izena zuen.

**Eta non ibiltzen ziren?**

Inguruaren. Oroitzen naiz nola Katalina Gortzaundiko zenak eman zion baloiari lehendabiziko ostikoa. Gerra etorri zenean, taldeari 'euskalduna' izena kendu egin zioten.

**Non biltzen zineten?**

Emakumeak, Emakume Aber-

tzale Batzakoak, Artxikonon genuen biltokia. Ireki zenean, ganbaran egin zen festa. Argirik ez zen eta kandelen argitan ospatu genuen.

**Gizonak berezita?**

Haiek Ojalateroanetik beharago zegoen etxe batean biltzen ziren [Pintterdi zuen izena].

**Gauza asko jarri zenituzten martxan.**

Bost urte izan genituen. Denbora gutxi. Gerra hasi zenean bukatu ziren gure lanak.

**Nola gertatu zen hori?**

Zurrumurruak bazebiltzan zerbait heldu zela: 40.000 *rojo* zirela etortzekoak Gipuzkoatik eta hemendik haien bila joaten ziren eskopetekin. Guk barre egiten genuen. Baina, igande bat zen, uztailearen 19an etorri ziren Leitzara. Zerbait ikusten ote nuen edo, estankora joan nintzen poxpolo bila, eta orduantxe heldu ziren *reketeak*, denak armekin 'viva espanya-ka'. Bi edo hiru attuna ziren haien esperora joanak. *Rojoak* ez, baino haiek etorri ziren. Paretik pasatzerakoan esan nion *margaritonga* bati: 'Hauek gu hiltzera etorri izanen dira'. Ez zuen deus esan; orduantxe hasi zen gerra.

**Gogorra?**

Oso. Edozeinen etxera joaten ziren eta arakatu. Gurera ere etorri ziren, aita Batzokiko lehendakaria zen eta anaia, be-

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

## Zein da euskararen egoera eskualdean?

Eskualdean euskararaz jende dezente egiten du, baina nire ustez bizi garen guztiok egin beharko genuke.

OIER

Nire ustez, eskualdeko eta Euskal Herri osoko euskararen egoerak gazterian du oinarria, eta adibide garbia dira Tolosaldeko gaztetxoak: moda amerikarizatuak jarraitzen dituzte eta erdarara jotzen dute hitz egiteko garaian, eto hori saihesten saiatu beharko ginatke, guztion artean saiakera bat eginez gero askoz errazagoa bailitzateke guztion arteko komunikazioa euskaraz ematea.

NERONEK BADAQIT

Ez dut uste gure eskualdeko euskararen egoera oso kaxkarraren denik beste askoren aldean, baina gauza asko daude oraindik aldatzeko. Esaterako,

gure herrietako udal ordezkari askoren aldetik ez da bermatzen haiekin euskaraz komunikatzeko dugun eskubidea, eta herri askotan gazteleeraz egiten ari dira osoko bilkurak, euskaraz beharrean. Administrazioan, erakunde publikoetan, osasungintzan... horietan euskararen egoera tamalgarrria da, eta denok sufrizten ditugu ondorioak. Jende askok ez du euskaraz egiten ez dakielako, eta orain arte uste nuen 50 urte inguruko jendeak zuela arazo hori, baina lehengoan Garbera merkatal zentroan ireki duten denda batera joan behar izan nuen, eta bertako langile guztiak gazteak izanik ere, inork ez zekien euskaraz. Lotsagarria iruditu zitzaidan. Txineraz ariko banintzaie bezala begiratzaren ninduten. Posible ote? Ez dakienak ez dakielako, eta dakienak erabiltzen ez duelako; euskara zaindu behar dugu!

IGOR

## Merkealdian erosteko joerarik ba al duzu?

Merkealdian askotan erostea-gatik erosten da. Nik badut ohitura erosteko. Aurretik zerbait gustatu bazait, hori erosteko aprobetxatzen dut, saldu ez bada, noski. Okerrena, merkealdira ekartzen den arropa. Nahiko engainatzen gaituzte merkealdia den horrekin.

MAIKA

Bai, baina tamalez Tolosan ez dago merkatalgunerik eta Urbil edo Garberara joan behar izaten dut.

TOLOSAKO GAZTE BAT

Bai, badut ohitura merkealdira joateko. Tolosan, egia esan, garai honetan erosten dut, prezio aldetik orain dagoelako aukera. Edozein galtzak balio du 80, 90 edo 100 euro Eguberrietan eta orain zertxobait merketzen dira. Hala ere, orain 20 euroren truke ditugu galtzak merkatalguneetan; eta nola ez dugu ba hara joko! Prezioak asko putzu dira eta zaila da arropa baten-gatik hainbeste ordaintzea. Nahiz eta jakin herrietako dendetan erostea beharrezko dela.

KATTALIN



## Udaltalde 21, sinatuta

**TOLOSALDEA** ▶ Landa eremuko Udaltalde 21 programa pilotuan sartu dira Albizturko, Alkizako, Bidegoiango eta Larrualgo udalak asteon. Astelehenean bildu ziren lau herrietako alkateak eta IHOBEko, Foru Aldundiko eta Mendikoiko ordezkariak Larraulen —argazkian—, eta bertan sinatutako lankidetzaren harremanaren bitartez, Tokiko Agenda 21aren metodologia herri txikietara egokitu, garapen iraunkorraren alde elkarrekin lan egiten saiatuko dira lau udal horiek. Programa aitzindaria da, eta udalek inolako kosturik gabe eraman ahal izango dute aurrera; izan ere, finantziario berezia izango du: aurrekontuaren erdia Eusko Jaurlaritzako Antolamendu eta Ingurumen sailak jarriko du; %30 Foru Aldundiak eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailak, Mendikoiko sozietatearen bitartez. O. ESKITABEL



JAIONE ASTIBIA

## PERTSONALKI ▶

▶ 1908ko urriaren 21ean jaioa ▶ Leitzako Etxeberriko alaba  
▶ Danboliñenera ezkondu eta alaba baten ama ▶ Bere denboran nekazalkoan, jostun eta neska aritua ▶ Leitzako lagunik adintsuena da.

**Afziorik baduzu?** Baratzen aritzea, jostea... Baina orain ezin ari naiteke horretan. **Irakurri edo?** Baita ere, egunero leitzen dut prentsa, baina aspertu naiz. Orain letra-zopak egiten aritzen naiz.

## KONPONBIDEA

«Zaila. Jendeak bat egin behar luke. Bakoitzak bere aldetik tiratzen du eta bi zakur handi dauzkagu ondoan»



rriz, herriko taldekoa. Etxearen lau aldetan, herriko *reketeak* armatuta zeuden bitartean, *guardazilek* arakatu zuten. Ez zuten deus bilatu. Edo aurpegi estalita, harrika ematen ziguten, etxeetako leihoak harrikatu, lehergailuak jarri...

### Hori mendea.

Nik ez dut sekulan onartuko eta barkatuko ere ez, pertsona bat odol-hotzean nola jarri dai-tekeen halako grinarekin, bestearen aurka. *Toma* bat izaten zenean, elizara joaten ziren 'accion de gracias' egitera eta ondoren sekulako festa egiten zuten. Biharamonean, beraien tropentzat errekiak egitera

ateratzen ziren gure etxeetara. Orduan moztu zioten ilea gure Gregoriri.

### Bukatu zenean?

Gerrondoa okerragoa izan zen. Latza. 14koa, Afrikakoa, 36koa, Gerra haundia ere ezagutu ditut. Eta orain, berriz, mila gerra! **Bai? Hori uste duzu gaur egunekoaz?**

Oso konponbide zailakoa dago. Batzuk nahi dute; besteek ez. Jendeak bat egin behar luke. Bakoitzak bere aldera egiten du; bi zakur handi ditugu ondoan. Kostutuzioa ez dela aldatu behar diote. Denak haien-tzat hartu zituztenean ederki aldatu izanen zituzten, bada!



## Antzerki emanaldi bikaina Leidorren

**KULTURA** ▶ Tanntaka Teatroak *Paradero desconocido* lana aurkeztu zuen herenegun Leidor aretoan. Emanaldi bikaina eskaini zuten Kike Diaz de Rada eta Isidoro Fernandez aktoreek Iñaki Salvador eta Pello Ramirez musikariekien batera. Ikus-entzuleak, ordea, gubxitxo izan ziren, aukeran. Lastima, ikuskizun ederra izan baitzen benetan. J. SAIZAR



## 'Barrebira'-k haurren ikusmina piztu du

**HAUR IKUSKIZUNAK** ▶ Tolosaldeko txikienek ikuskizun apartaz gozatzeko aukera izan zuten atzo Leidorren. *Barrebira*-rekin etorritako Txan magoak, Elvi sabelhiztunak —argazkian, bere panpinen laguntzarekin— eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen eskainitako emanaldi bikainak haurren ikusmina piztu zuen. IMANOL GARCIA



## AHTren aurka egin dute bat herritarrek

**AHT** ▶ *AHTren inposaketaren aurrean Tolosaldeko udalek, zer?* lelopean, kontzentrazioa egin zuten atzo, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, 40 bat lagunek Tolosako udaletxe aurrean. AHTren aurkako afixak banatu zizkieten bertatik igarotako herritarrei, «proiektuak sortuko dituen kalteen inguruan haiek denak sentsibilizatzeko» helburuarekin. IÑIGO TERRADILLOS

PILOTA ▶

# Lau t'erdiko txapelketa hasi da jada Beotibarren

Union elkarteak urtero antolatzen duen Garziandiaren oroimenezkoaren lehen partidak jokatu zituzten atzo pilotariak

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zitzaion hasiera Peña Union elkarteak antolaturiko Marzelo Garziandiaren oroimenezko Lau t'erdiko Pilota Txapelketari. Jende asko gerturatu zen goiz osoan zehar Beotibar frontoira lehenengo hiru partidak ikustera.

Etxeberria II. eta Setien Tabar eta Yuberoren aurkakoa izan zen lehendabizikoa eta azken hauek irabazi zuten 22 eta 14ko emaitzarekin.

Bigarrenean, Huizi lesionatuaren ordezkari Berasaluzek jokatu zuen Dominguezekin eta irabazi egin zuten Zabala eta



Lau t'erdiko txapelketako lehen hiru partidak jokatu zituzten atzo. I.T.

Landaren aurka 22 eta 17. Hirugarrena, berriz, Urmeneta eta Iraolak irabazi zuten Ardanaz eta Garrizen aurka 22 eta 9ko emaitzarekin.

Datorren larunbatean joka-

tuko dituzte txapelketako hurrengo partidak, eta, horrela, astez aste irabazleak sailkatuz joango dira apirilaren 9 an Beotibar pilotalekuan izango den final handirako.



## Euskal produktuak gure sukaldean

Urtarrilaren 23tik aurrera egunero fitxa bat **DOAN BERRIAREKIN**



*Jantzi mantala eta hasi sukaldean!*

50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradoroa, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea...

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

**berria**



ERREMONTA ▶

# Zeberio II.a eta Urrutia dira erremonte txapeldun berriak

Atzetik hasi baziren ere, azkenean 40-28 irabazi zieten Altuna II.a eta Etxaberi; partida gogorra izan zen erdialdera arte baina gero gorriak nagusitu ziren erraz



Urrutia eta Zeberio II.a, txapelarekin eta garaikurrarekin; oso ondo konpondu dira elkarrekin txapelketan eta finalean. JON URBE—ARGAZKI PRESS

INIGO TERRADILLOS  
IMANOL GARCIA

Zeberio II.ak eta Urrutiak osatzen duten bikoteak irabazi zuen atzo arratsaldean Hernaniko Galarreta frontoian jokatuako Binakako Erremonte Txapelketako finala. Altuna II.a eta Etxabe izan zituzten aurrez aurre finalean, eta 40-28ko emaitzarekin hartu zituzten mendean.

Juaristi eta Lizaso gainditu zituzten finalera iristeko Zeberio II.ak eta Urrutiak eta Ezkurra eta Badiola, berriz, Altuna II.a eta Etxabek. Txapelketa honetan zehar egin dute topo beste behin ere Zeberio II.a elduindarrak eta Altuna II.a amezketarrak. Partida hartan, finalean ez bezala, Amezketakoak eta Etxabek osatzen duen bikoteak irabazi zieten Zeberio II.ari eta Urrutiari 40 eta 36ko emaitzarekin.

Nahiko orekatua izan zen partida hura, baina bestelakoak izan dira kontuak final handian. Gainera, faborito nagusia zen Elduaingoa eta dirua bere alde zegoen.

Altuna II.a eta Etxabe (elastiko urdinarekin) gogor hasi ziren eta aurretik joan ziren hamaseigarren tantura arte. Une horretan lortu zuten Zeberio II.ak eta Urrutiak (gorriz) markagailua berdindu, eta aurretik jartzea lehendabiziko aldiz partida guztian. Amaiera bitartean mantendu ziren egoera horretan gorriak.

Partida amaitzean, Patxi Zeberio pozik agertu zen lortutakoarekin. «Ez da final erraza izan eta lan handia egin beharra izan dugu», aipatu zuen. «Aurkariak tronban atera dira, gogotsu eta guztia emanez eta zazpi tantoko abantaila atera digute; nahiko estututa ibili gara orduan, baina gero beste pi-

lota bat atera dugu eta hori uste dut izan dela gaurko garaipenaren arrazoietakoa bat», azaldu zuen elduindarrak. «Pilota horrekin oso ondo hasi da sakatzen Urrutia eta tanto mordo egin ditu; nik, berriz, aurrean eutsi diot eta pixkanaka partiduan sartzen joan naiz eta nire jokoa egiten hasi».

Oso seguru aritu zen Urrutia gaztea. «Nere lanean hutsik ez egitea eta Zeberiori tantoak egiteko lana uztea izan da nire helburua», zioen. Bere herki-deak pilotalekura azaltzearekin oso gustura zegoela, eta gauean ospakizun dotorea egingo zutela gehitu zuen.

Tanto politak ikusi ziren atzoko finalean. Behin abantaila hartuta arriskatzea errazago dela aipatu zuten gorriek. Partida amaitzeko modua ere oso polita izan zen, bi paretez egindako tantoa izan baitzen berrogeigarrena eta txapelketa

bati amaiera emateko modu ezin hobea dela adierazi zuten garaileek.

Laugarren txapela lortu du Zeberio atzokoarekin, eta txapel hori etxekoei, eta, bereziki, min hartuta dagoen anaiari eskaintzen diola adierazi zuen. Urrutiak lehendabizikoa zuen: familiari, lagunei eta, bereziki, orain gutxi hil den lagun bati eskaintzen diola adierazi zuen partida amaitzean.

Elkarrekin ondo moldatzea izan da txapelketa eta final ezin hobea burutzeko gakoa. Hasieran ez zuten elkar ondo ezagutzen; hamaika partida jokatu, oso ondo konpondu dira.

TOLOSA ▶

## Beotibar elkarteko partidak, gaur

Beotibar Zesta-Punta elkarteko kadete eta jubeni mailako jokalariek Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako partidak jokatu dituzte gaur, 11:00etatik aurrera. Beotibar pilotalekuan.

TOLOSA ▶

## Gurasoentzako hitzaldia Orixen asteartean

Orixen institutuan Batxilergo 1. eta 2. mailako eta DBH 4. mailako ikasleen gurasoentzako hitzaldia Nola landu autoestimua seme-alabengan izenburupean. Asteartean, 19:00etan, institutuan.

TOLOSA ▶

## LH Institutuko ikastaroetan izen-ematea

Tolosaldea Goi Mailako LH Institutuko CNC Fresadora programatzea, CAD 3D (SO-LID EDGE) eta analisi kontablea ikastaroetan izen-emateko 943 65 11 47 telefonoan.

ZUZENKETA ▶

Gipuzkoako zaldi lasterketen ligaxkan zortzi dira eskualdeko parte-hartzaileak, eta ez zazpi aipatu bezala. Bestalde, azken karrera Deban jokatu da irailaren 25ean eta finala noiz izango den zehazteko dago oraindik.

### iragarki laburrak ▶

#### Administrazio laguntzaileak.

Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.

#### Sukaldari laguntzaileak.

Plaza libreak eskoletan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

**Gidariak.** Laster sarrerak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa

doan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

**Peoiak,** elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

**Haur Hezkuntza.** Plaza libreak haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Ostalaritza.** Sukaldeko laguntzaileak, sukaldariak,

zerbitzariak. Plaza finkoak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. 943 65 01 93.

**Laborategi** ingurumena, Osakidetza, araztegi. Plaza libreak udal, Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.

**Basozainak.** Udal, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, administrazio publikorako. Informazioa doan. 943 65 01 93.



## GIZARTEA ▶



Tabernetan edo kalean egoteari alternatiba aurkitu diote egungo gazte taldeek alokatutako lokalak beren biltoki bihurtuz. HITZA

## Gazteak biltzeko txokoak

Helduen elkarten antzera, lokalak alokatu eta beraien gustura jarriz koadrilek biltzeko leku aproposak aurkitu dituzte; Tolosara ere hedatu da joera hori

## ERREDAKZIOA

**D**uela urte batzuk, Euskal Herriko herri ezberdinetan, gazteentzako lokalak alokatzeko joera izan zen. Durango edota Iruñea izan daitezke joera horren adibide garbienak, bertan eman baitzen nabarmenago, eta bertan mantentzen baita indar handiagoz.

Lagun talde batek elkartzeko toki baten beharra somatzen duenean ez du aukera handiegirik: taberna edo kafea. Aukera mugatu horri alternatiba gisa sortzen da aipaturiko joera hori, baina zailtasunak ere segituan agertzen dira, gutxienez, Tolosan.

Koadrila batek lokal bat alokatzeko planak egiten dituenan lehen arazoa, gurasoen irizki ezkorra alde batera utzirik, inmobiliariari iristea izaten da. Bertan sartu eta salbuespenak salbuespen, gazteak bidaltzea izaten da lehen helburua, informazio eskasa eman eta interesik agertu gabe gazteak joan arazi izateko, alegia. Urtebeteko kontratu bat sinatzeaz gain, nomina aurkeztu behar izaten da, eta ikasten ari diren koadrilek ez dute baldintza horiek betetzeko aukerarik izaten. Horrez gain, lokalaren jabearen onspena jasotzea ere zaila

izaten da, izan ere, gazte lokalak ez dira orokorrean ongi ikusiak izaten. Esperientzia, berriz, ez da horren problematika. Bizilagunekin hitz egin eta hauekin musika bolumena kontrolatzea adostea izaten da egin beharreko guztia. Hala ere, inmobiliariak eta lokalak jabeak nahiko arazo izaten dira askotan gazteen planak aurrera eramateko, eta horregatik, Tolosan hiruzpalau gazte lokal besterik ez daude.

Leku horien funtzionamendua helduen elkartenaren antzekoa izaten da. Koadrilako kide guztiek bertako giltza bana izaten dute eta gastuak guztien artean ordaintzen dira. Horrela, lokalera joan eta han arratsaldean zer egingo duten erabakitzen da, kalean gelditu eta norabiderik gabe ibiltzen hasi baino lehen. Gainera, afariak egiteko edota taberna baten moduan, musika entzun eta *tragoa* hartzeko aukera ere ematen dute. Gogoaren arabera, kartetan edota egun horren arrakastatsuen *play station*-ean jokatzeko gain, pelikula eta DVD musikakal ikusteko, edo, besterik gabe, hizketan aritzeko aukera ere izaten da.

Gazte lokal horien errenta hilabeteko 250 eta 400 euro artekoa izaten da, eta horrez gain, elektrogailuak, altzariak



Afariak egiteko beharreko guztia izaten dute lokal horietan. HITZA



Telebista edota filmak ikusi eta musika entzuteko prestatuta. HITZA

eta bestelako tresnak lortzeko ere dirua behar izaten da, horregatik gurasoek berritzen duten edozein tresna erabilgarria izaten da gazteentzat. Hozkailuak, labeak, mikrouhinen labeak, telebistak, DVDak, bi-

deoak, musika kateak, berogailuak, mahaia eta etxean soberan dagoen edozer aprobatu daiteke. Lokalen funtzionamenduko arazo nagusia, berriz, garbiketa lana antolatzea izaten da.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

## ▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaldia.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Ibarraldeia.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Olarreaga, A. Korreo 2 (Tolosa). 943 67 01 28  
Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza). 112.

**Bihar.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa). 943 65 10 40  
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publici@tolosaldeko hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

**Anoetaldia.** 687 41 00 22

anoetaldia@tolosaldeko hitza.info

**Ibarraldeia.** 687 41 00 32.

ibarraldeia@tolosaldeko hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

**Leitzaldeia.** 687 41 01 18.

leitzaldeia@tolosaldeko hitza.info

## iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Tolosa.** Etxebizitza salgai erdialdean. 117 m<sup>2</sup>. Agentziak ez deitu. 656 76 64 39.

**Alegia.** Larraitz auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.

**Autoa.** Opel Combo salgai.

2000 urtekoa. 67.000 km.

661 35 92 92.

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako

sukaldaria behar da

asteburuetan lan egiteko. 943

69 19 33..

**Tabernan.** Neska euskalduna

behar da Anoetako taberna

batean lau orduz lan egiteko.

635 74 52 91.

**Sukaldaria-tabernaria.**

Sukaldaria eta tabernaria behar

dira. Deitu 15:00etatik aurrera.

943 68 21 54.

TOLOSA ▶

## Aurreko larunbatetan baino jende gehiago

Eguzkiak eragina izan du bai erosleak azaltzeko bai barazkien itxura onean

PABLO ALBERDI

Eguzkia lagun genuela, oro goiza alaia bizi genuen atzo azokan. Erosleak, eguraldi ona zegoenez, azokatik bueltatxo bat ematea aukeratu zuen, eta nabaritu zen joan diren asteetan baino jende gehixeago zegoela.

Produktuaren eskaintzan ere, eguzkiak zerikusia izan du, antza denez. Barazkiak izugarritzko freskotasuna zeukan eta heldutasun puntu bikaina ere bai. Aipatzekoak dira ikusi genituen kalabazak: izugarritzko tamaina zeukaten, eta kolorea eta hezetasun puntua ezinhobeak ziren.

ATZOKO AZOKA ▶

Produktuak	merk.	gares.
<b>Bertakoak</b>		
Oilaskoa (4 astekoa)	1,60	-
Errezil sagarra	2,00	5,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Tipula	0,80	1,00
<b>Ekologikoak</b>		
Kalabaza (kiloa)	1,60	3,04
Azenarioa (kiloa)	2,00	2,50
Aza (unitatea)	2,50	3,00
<b>Berdura plaza</b>		
Lilia	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00

PRESOAK ▶



Andoni Otegi. HITZA



Jon Tapia. HITZA



Ana Belen Egues. HITZA

# Presoen kolektiboak protestaldia hasi du

«Isolamendu politikoaren kontra» itxialdi txandakatuak egingo dituzte; eskualdeko hiru preso herenegun hasi ziren

IMANOL GARCIA

«Euskal preso politikoen kolektiboak, hainbeste alditan ixilarazia izan den ahotsa altxatuz hasi du urtea. Bai Espainiako estatuko zein Frantziako espetxe guzti-guztietan borrokaldu bati ekin dio bere aldarrikapenak exijituz», azaltzen du Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

Besteak beste, borroka ekimen honek presoen kolektibolari «ezartzen zaion isolamendu politikoarekin bukatu eta euskal preso politikoei hitza ematea du helburu», jakinarazi du presoen aldeko mugimendua. Honen harira, «herri honen zatia diren heinean ere, prozesuan parte hartzea bermatuko duen egoera ahalbidetzeko estatus politikoak» exijitzen dute.

Espainiako eta Frantziako espetxeetan dauden 700dik gora presok hartuko dute parte protestaldi honetan. Kolektibo osoak hilaren 3an egin zuen planto orokorra eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko itxialdiak egingo hasi dira, txandaka.

Bigarren txanda herenegun hasi zuten eta bertan Tolosaldeko hiru presok hartzen dute parte: Leaburuko Andoni Otegi, Zizurkilgo Jon Tapia eta Elduingo Ana Belen Egues. Hurrengo beste bost txandetan, eskualdeko beste hainbat preso izango dira itxialdian parte hartuko dutenak.

«Isolamendu politikoaren kontra eta estatus politikoaren alde» egiteaz gain, borrokaldiarekin hainbat aldarrikapen egingo ditu presoen kolektiboak eskubide ezberdinen inguru-

ruan: tortura eta tratu krudelik ez; ez isolamendurik, ez jipirik; osasun eskubidea; preso gaixo larrien kaleratzea; komunikazio eskubidea; ez interbentziorik, ez mugarik; hizkuntza eskubidea; euskaraz bizi-tzeko eskubidea; hezkuntza eskubidea; ikasteko zangotabarik ez; Euskal Herrian elkar-tzeko eskubidea; antolatzeko eskubidea; presoen mintzaki-detzaren aitortza; beste eragilekin harremanetan izateko eskubidea; euskal eztabaida eta erabaki gune orotan parte hartzeko eskubidea, kasu.

ESKUALDEKOAK ▶

2. TXANDA

- 05-01-14/05-01-24.
- ▶ Andoni Otegi. Leaburu.
- ▶ Jon Tapia. Zizurkil.
- ▶ Ana Belen Egues. Elduain.

3. TXANDA

- 05-01-24/05-02-03.
- ▶ Aitor Agirrebarrena. Lizartza.
- ▶ Oskar Zelarain. Villabona.

4. TXANDA

- 05-02-03/05-02-13.
- ▶ Txus Goikoetxea.

5. TXANDA

- 05-02-13/05-02-23.
- ▶ Iñigo Otazua.
- ▶ Julen Zelarain. Villabona.
- ▶ Pello Zelarain. Villabona.
- ▶ Ander Geresta. Zizurkil.

6. TXANDA

- 05-02-23/05-03-05.
- ▶ Ekaitz Aramendi. Ibarra.
- ▶ Iñigo Guridi. Villabona.
- ▶ Eider Ijurko. Ibarra.
- ▶ Jon Mintegiaga. Ibarra.
- ▶ Pello Odriozola. Tolosa.

7. TXANDA

- 05-02-23/05-03-05.
- ▶ Eneko Gorostidi. Villabona.
- ▶ Emilio Salaberria. Villabona.
- ▶ Koldo Alaña. Lizartza.

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.  
20150 ADUNA  
Tel. 943 69 68 64  
Faxa: 943 69 68 47

**hitza** lagunena  
**txokoa**

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**ILUMINAZIOA**

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**SHANTY KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 16a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztozola, Adana, Albiztur, Aego, Alkiza, Altona, Ametzola, Anoeta, Bolaman, Bobantza, Berastegi, Edoain, Herrialde, Harro, Itxaso, Irujo, Lamiel, Leizola, Lizarri, Oteiza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
 besterik: Leizola, Leizola, Leizola

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zaintzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: ez

Igaratza: ez

# Laguntza olatuen premia

**TOLOSALDEA** ▶ Asia hego-ekialdean itsasikarak kaltetutakoei laguntzeko hainbat kontu korrante zabalik dira; Tolosako Udalak Laguntza Fondoa sortu du



Milaka hildako eta erabateko hondamendia utzi du itsasikarak Asia hego-ekialdean. HITZA

## ERREDAKZIOA

**M**ilaka hildako eta erabateko hondamendia utzi ditu itsasikarak Asia hego-ekialdean. Guztion laguntzaren premia duete hainbat herriarrek, eta eskualdean ere badago zer egiterik.

Besteak beste, Caritas Gipuzkoak Asia hego-ekialdearen aldeko kanpaina du martxan; larrialdiaren lehen faseko biktimak zaindu eta gunearen berrikuntzan laguntzea dute xede. Dirua eman nahi dute zentzuz honako kontu korrante ak jarri ditu: 0182570941 0010011112 BBVA-n; Kutxan, 210103810100 11112224; eta 3035006041060 0100001, Euskadiko Kutxan.

Bestalde, Tolosako Udalak tsunami-ek eragindako kalteak arintzeko Laguntza Fondoa sortu du. Horretarako, Kutxan kontu korrante bat ireki du: 2101 0067 2000 1018 2384 zenbakia, hain zuzen ere. «Interesa duten norbanakoei, erakundeek, enpresek eta abarrek egoki irizten dioten diru ekarpena eman ahal izango dute», azaldu dute Gizarte Zerbitzu departamenduko ordezkariak. Udalak berak «konpromisoa hartu» nahi du; eta, horregatik, 6.000 euroko hasierako ekarpena egitea erabaki du berriki.

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Etzitik (hilaren 18a) hasita eta apirila erdira arte, Anoetako KZgunea 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik, astearte, asteazken eta ostegunetan.  
**Tolosa.** Odol-ematea. Bihar, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Astebururo lege, Gazte Topagunea zabalik izango da, 16:30etik 20:30era, Kultur Etxean.  
**Txarama.** Txaramako elkartearen zuzendaritzaren aldaketa, 10:30ean.

### INAUTERIAK

**Ibarra.** Kaldereroetako entsegua, Loatzo musika eskolak deituta. Bihar, 17:30ean, eta hilaren 24an 16:30ean. Kaldereroak hilaren 28an aterako dira Ibarako plazatik, 18:30ean.  
**Tolosa.** Berazubiko danborradaren entsegua. 12:00etan, zezen-plazan.

### ZINEMA

**Leitza.** *Mar adentro.* 19:30ean, zinema-aretoan.  
**Tolosa.** *Diarios de motocicleta.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar eta etzi (astearte, Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 22:30ean.  
**Villabona.** Haurrei zuzendutako emanaldia: *El espantatiburones* filma (gaztelerez). 17:00etan, Gurean. Sarrera: 2,5 euro.

## ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
 Kornelio Urkia (Tolosa).  
 Bihar 97 urte.  
 Muxu asko eta zorionak.



**ZORIONAK**  
 Anixeto eta Maria.  
 Bihar 53 urte ezkundu zirela.  
 Zorionak familiaren partetik.

## AGURRAK ▶



**ZORIONAK**  
 Spiderman.  
 Bihar 6 urte.



**I. URTEURRENA**  
 Pepi Karrera Agirrebarrena  
 (2004.01.16)

Zuk emandakoa zuk erakutsitakoa bihotzean daramagu eta eredu bilakatu da.  
 Maite zaitugu.  
 Etxekoak.

**HITZA,** zorion agurren tartea  
 HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behean TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

**HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA**  
 Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu  
 Modelo eta kolore ezberdinak neska nahiz mutilentzat  
 Zatoz zurearen bila!  
 TOLOSako eta LEITZako egoitzetara